

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

66/2017 Foru Agindua, otsailaren 9koa, onartzen duena Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian 2016-2017 ikasturtean ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko dirulaguntzak lehiaketa bidez esleitzeko deialdia

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidezko dirulaguntzen deialdia proposatu du, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian 2016/2017 ikasturtean ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea dirulaguntzen deialdia, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian 2016/2017 ikasturtean ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko. Deialdia 40.000 euroz hornituta egongo da gehienez, eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehiaketa bidez ematen diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu zituenak (2015eko urriaren 21eko ALHAOn, 123. zenbakian, argitaratua) xedatutakoak arautuko du.

Bigarrena. Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2017ko gastuen aurrekontuko 70.1.0778.00.481.00.05 partidaren kontura ordainduko da (xedapen erreferentzia: 105.447).

Hirugarrena. Organo eskudunak emango du, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, eman beharreko ebazpena, hau hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada egon, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 9a

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

Eranskina**2016-2017 ikasturteko ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko
lehiaketa bidezko dirulaguntzen deialdia**

Oinarriak

Lehenengoa. Xedea eta helburua

Deialdi honen xedea da Arabako euskalteei laguntzea haiei loturiko ikasgela lekualdatuek eragindako gastuak ordaintzen, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituenak, xedatutakoaren esparruan.

Bigarrena. Aurrekontu egozpena

Ematen diren dirulaguntza guztiek ezin izango dute 40.000 euro baino gehiago egin. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2017ko gastuen aurrekontuko 70107.7800.481.00.05 ("Euskalteeien ikasgela lekualdatuetarako dirulaguntzak") partidaren kontura ordainduko da.

Hirugarrena. Erakunde onuradunak eta baztertuak

Deialdi honetako dirulaguntzak eskatu ditzakete euskalteeiek, baldin egoitza Araban badeute eta euskalteeia dagoen herritik kanpo ikasgela lekualdatuak badituzte. Euskararen Foru Zerbitzuak ikasgela lekualdatuei buruzko ziurtagiria eskatuko dio HABEri.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituenak, hirugarren klausulan aipatzen dituen egoeretan dauden euskalteeiak.

Laugarrena. Laguntzen zuzkidura

Euskalteei bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa honela kalkulatu da: euskalteeiaren Arabako egoitzatik euskalteei bakoitzari loturiko ikasgela lekualdatua edo ikasgela lekualdatuak dauden udalerrira arteko joan-etorriko kilometro kopurua bider 2016/2017 ikasturteko eskola egunak.

Dirulaguntzak banatzeko, puntuazioen arabera banaketa sistema bat erabiliko da. Horretarako, bigarren oinarrian zehaztutako zenbatekoa —40.000 euro— euskalteei guztiek egindako kilometro kopuruaren artean zatituko da. Horrela, puntuaren balioa zein den jakingo dugu.

Bosgarrena. Organo eskuduna

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskararen Foru Zerbitzuak izango du prozedura izapidetzeko eskumena.

Seigarrena. Erakunde onuradunek aurkeztu beharreko agiriak

1. Eskaerak Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuari aurkeztu behar zaizkio, agiri hauekin batera:

1. Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.

2. Erakunde eskatzailearen ordezkari diharduela egiaztatzen duen agiria.

— Euskalteeiari loturiko ikasgela lekualdatuak; eskola egun kopurua eta 2016/2017 ikasturtean zein herritara lekualdatu diren adierazi behar da, l. eranskinaren arabera.

Eskatzaileak soldatapeko langilerik badu, bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12.2 artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diola egiaztatu behar du. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundeek egiaztagiria aurkeztuko ditu. Dirulaguntza 800 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu behar, berriz ere.

58/2004 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorritik. Tributu betebeharreari dagokienez, nahikoa izango da egunean dituela adieraztea, eta Foru Aldundiaren zeregina izango da egiaztagiria egitea, Foru Ogasunaren bidez.

Zazpigarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua

Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zortzigarrena. Ebazpena

1. Balioespen Batzordeak aztertuko ditu eskaerak. Batzorde horren lehendakaria Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria izango da eta honako hauek izango ditu mahaikide: Euskararen Foru Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako teknikaria; Euskara, Kultura eta Kirol Sail-leko Idazkaritza Teknikoaren buruak jardungo du idazkari, eta hitza izango du, baina ez botorik.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta are artxibatzea ere.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz.

2. Eskatzaileari ez zaio entzunaldirik eskainiko, zeren eta, ebazpena ematean, eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez dira aintzat hartuko.

3. Organo eskudunak eman beharreko ebazpena emango du, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena ikusita; horretarako, gehienez ere, lau hilabeteko epea izango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ez bada egon, interesdunek eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko dute.

4. Esleipen ebazpenean zer erakunde eskatzaileari eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

5. Dirulaguntza eskaerari baiezkota eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertu beharko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko era eta dirulaguntza zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpenaren berri emango zaie erakunde onuradunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

6. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatzen dituen moduetan.

7. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, uztailearen 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenaren, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, nahi izanez gero errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Bederatzigarrena. Laguntzak ordaintzea

Dirulaguntza osorik euskaltegi bakoitzari ordainduko zaio, dirulaguntza emateko ebazpena hartu ondoren.

Hamargarrena. Dirulaguntza aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozer dela ere, edozein erakunde publiko edo pribatuk gauza bererako emandako laguntzak edo dirulaguntzak lortzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egin daiteke, eta dirulaguntza itzuli beharra ere gerta daiteke.

Hamaikagarrena. Dirulaguntza galtzea

Gerta liteke onuradunak deialdi honetan esleitu zaion dirulaguntza galtzea, espedientea abiarazi ondoren, datuak doloz eman gabe uzteagatik edo datuak faltsutzeagatik aurkeztutako eskabidean edo agirietan, edo oinarri hauetan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

Oinarri hauetan zehaztutako betebeharren bat ez betetzeak berekin ekarriko du dirulaguntza berriro aztertzea, eta, egoki iritziz gero, laguntza baliogabetzea edo ordura arte jasotakoa itzuli behar izatea.

Era berean, jasotako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, xedatzen dituen kasuetan.

Espedientearen ondorioz dirulaguntza galtzen bada, aurreko paragrafoan aipatzen den araudian ezarritako zehapen araubidea aplikatuko da.

Onartutako dirulaguntzaren kontura jasotako kopuruen itzulketa zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da, eta abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, II. tituluko I. kapituluan xedatutakoaren arabera kobratuko da hura.

Hamabigarrena. Garapena

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak deialdia garatzeko egoki jotzen diren ebazpenak emango ditu, eta behar diren ekintzak egin ahalko ditu onuradunei datuak eskatzeko, eta ziurtatzeko aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta oinarrietan araututakoa bete dela. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten bestelako erakundeek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

Hamahirugarrena. Interpretazioa

Oinarri hauek interpretatzerakoan zalantzarik sortzen bada, Aldundi honetako Euskara, Kultura eta Kirol Sailak ebatziko du.

Hamalauugarrena. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetako dirulaguntzekin batera, organismo edo erakunde publiko nahiz pribatuek, estatuko nahiz nazioartekoek, jarduera edo programa bererako esleitutako dirulaguntzak ere jaso ahal izango dira, betiere dirulaguntza horren zenbatekoa ez bada, bakarka nahiz beste dirulaguntzekin batera, matrikularen kostua baino handiagoa.

Hamabosgarrena. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emango zaio hedabideetan.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

2016-2017 ikasturteko ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikorako eskaera orria

2017

Solicitud de ayudas económicas destinadas a financiar
los gastos de las aulas desplazadas, curso 2016-2017.

Euskara, Kultura
eta Kirol Saila

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

I ERANSKINA ■ ANEXO I

Eskaera zk. ■ N° Solicitud

Eskaera data ■ Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

IKZ
CIF

NAN
DNI

AIZ
NIE

Besteren bat
Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

Emakumea
Mujer

Gizona
Hombre

Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herría ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL ⁽²⁾

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herría ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

NAN
DNI

AIZ
NIE

Besteren bat
Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

Emakumea
Mujer

Gizona
Hombre

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Protokolo zk. ■ N° protocolo

Data ■ Fecha

Notarioa ■ Notario

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

2016-2017 ikasturteko ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikorako eskaera orria

2017

Solicitud de ayudas económicas destinadas a financiar
los gastos de las aulas desplazadas, curso 2016-2017.

Euskara, Kultura
eta Kirol Saila

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

I ERANSKINA ■ ANEXO I

- Entitateak soldatapeko langileak dauzka ■ La entidad solicitante tiene personal asalariado a su cargo
 Administrazioari edo dagokion erakundeari baimena ematen diot diru-laguntzaren ordainketa edota zuriketa egin ahal izateko
premiazko diren fiskaltate datuen gaineko informazioa eskatzeko, horrela oharreko agiririk ez da aurkeztu beharrik izango ■ Autorizo
a solicitar a la administración u organismo correspondiente, a solicitar información relativa a los datos de carácter fiscal que tengan relación
directa con los requisitos para el abono y/o justificación de la subvención, en cuyo caso no se precisará la presentación de los documentos
detallados en la nota².

Euskaltegia dagoen udalerría Municipio donde se situa el euskaltegi	Ikasgela hartuko duen udalerría Municipio que tomará el aula	Talde kopurua Número de grupos	Ikasturtearen eskola egun kopurua Número de días lectivos del curso	Joan etorria Ida y vuelta	Km urtean talde bakoitzeko Km anuales por grupo

BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS

Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete soilik. ■ Cumplimentar únicamente en el caso de
modificación de los datos de la domiciliación bancaria

FINANTZA ENTITATEA / ENTIDAD FINANCIERA

BANCO	
IBAN	SWIFT

Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua)

Conforme entidad financiera (firma y sello)

Kontu korrontearen titularrak doakion hirugarrena bera behar du izan.

La titularidad de la cuenta bancaria debe coincidir con el/la interesado/a.

¹ Aurkeztutako hiruhileko 110 ereduak, PFEZaren gaineko atxikipenak eta sarrerak, haien ordainagiriak, eta 190 ereduak, atxikipen eta kontruako sarrem urteko laburpena. Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza et Aurrekontu Sailaren edo zerga egoitzaren kokalekuko zerga administrazioaren ebazpena, zeinaren bidez onartu egiten den erakundearen izaera soziala, halaxe jasotzen baitu BEZaren Foru Arauaren 20 hiru artikulua, zerga ordaindu behar izatek salbuesteko, BEZaren Foru Arauaren 12. eta 14. paragrafoko 20 bat artikulua jasotzen duen bezala.

² Los modelos 110 trimestrales, la acreditación del pago de los mismos, así como el modelo 190 (Resumen anual de Retenciones e Ingresos a cuenta). La resolución del Departamento de la Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava, o de la Administración tributaria donde radique su domicilio fiscal en la que se le reconozca el carácter social de la Entidad previsto en el artículo 20 tres de la Norma Foral de IVA, a efectos de la aplicación de la exención del Impuesto contenida en el artículo 20 uno, apartado 12º y 14º de la Norma.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

2016-2017 ikasturteko ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikorako eskaera orria

2017

Solicitud de ayudas económicas destinadas a financiar
los gastos de las aulas desplazadas, curso 2016-2017.

Euskara, Kultura
eta Kirol Saila

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

I ERANSKINA ■ ANEXO I

ERANTSITAKO AGIRIAK ■ : DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

- NANaren fotokopia** ■ Fotocopia del D.N.I.
- Elkartearen ordezkari-tan diharduela egiaztatzen duen agiria** ■ Documento que acredite que actúa en representación de la asociación o entidad beneficiaria.
- Hirugarrenen fitxa eta erakundearen IFKren fotokopia (aurretik ekarri ez badira)** ■ Ficha de terceros y fotocopia del CIF de la Entidad (si no han sido aportados con anterioridad)

(*Tokia eta data* ■ *Lugar y fecha*)

Eskatzailearen/Ordezkairearen sinadura ■ Firma de la persona solicitante/representante

Oharra (1)

Datu Pertsonalak Babesteko dauden arauak betez, jakinarazten dizugu zure datuak Aldundi honen fitxategietan jasoko direla. Fitxategi horiek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Erregistroan inskribatuta daude eta horren eskumeneko eginkizunak gauzatzeko egoki diren segurtasun neurriak dituzte. Datu horiek ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Datuen kontra egiteko, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko edo ezereztzeko eskubiak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiarren Erregistroaren Bulegoan (Prointzia plaza 5, P. K. 01001 Gasteiz, Araba).

Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman behar duzu jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin hurremanetan jartzeko, posta elektronikoko bakarraren helbidea (EBH) tortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

Oharra

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT:

LEHENENGOA- Ez ordezkatzeko dudako erakundeak ez erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridikok edo elkarte ez duela, sexua dela eta, inor baztertzeko, ez zuzenean ez zeharka, onarpen eta funtzionamendu prozesuetan, OLOren 13. artikuluan eta Euskadiko Berdintasun Legearen 24(2) artikuluan xedatutakoarekin bat etortz.

BIGARRENA- Ez ni, ez ordezkatzeko dudako erakunde edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridiko edo elkarte ez dela zigortua izan, ez arlo penalean ez administrazioan, sexua dela eta, inor baztertzeko, ez eta abuztaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren xedapen gehigarrietako hamalagarrenean gizonen eta emakumeen berdintasun arloan xedatutakoak urratzeagatik ere. Legegintzako errege dekretuak Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du eta lege organikoak emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna. Hona hemen halako batzuk, besteak beste:

Nota (1)

En cumplimiento de la normativa de "Protección de Datos de Carácter Personal", le informamos de que sus datos se incluirán en ficheros de esta Diputación, inscritos en la Agencia Vasca de Protección de Datos y que cuentan con las medidas de seguridad adecuadas para la realización de funciones de su competencia. No serán comunicados a otras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Podrá ejercitar los derechos de oposición, acceso, rectificación y cancelación en la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5. C. P. 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava).

Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una dirección de correo electrónico única (DEU) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente.

Nota

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

PRIMERO- Que ni la organización a la que represento, ni persona jurídica o entidad alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de la entidad a la que represento realizamos actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 13 de la LGS y artículo 24(2) de la Ley de Igualdad de Euskadi.

SEGUNDO - Que ni yo, ni la organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de esta sociedad, hemos sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social y Disposición Adicional Decimocuarta de la Ley Orgánica 3/2007, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres de 22 de marzo (entre otras, a título no limitativo).



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

2016-2017 ikasturteko ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikorako eskaera orria

2017

Solicitud de ayudas económicas destinadas a financiar
los gastos de las aulas desplazadas, curso 2016-2017.

Euskara, Kultura
eta Kirol Saila

Departamento de
Euskara, Cultura y Deporte

I ERANSKINA ■ ANEXO I

1. Ez bete Langileen Estatutuak edo aplikagarri den hitzarmen kolektiboak berdintasun planen arloan ezarritako betebeharrak.
2. Sexua dela eta ordainsari, lanaldi, prestakuntza, sustapen eta gainerako lan baldintzetan bereizkeria zuzena edo zeharkakoa dakarten enpresa erabakiak.
3. Langileek enpresan egindako erreklamazio edo berdintasun eta bereizkeriarik gabeko printzipioa betetzeko eskatzen duten egintza administratibo edo judicial baten aurrean, haien aurkako jarrera dakarten enpresaburuaren erabakiak.
4. Publizitate edo beste zernahi hedatze bidez, baldintzak ezartzea, sexua arrazoi, onerako edo txarrerako baztertzen dutenak.
5. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarlea normahi dela ere.
6. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarlea normahi dela ere, baldin eta enpresaburuak, jakinaren gainean, ez badu neurrik hartu halakorik ekiditeko.
7. Berdintasun planik ez egitea edo aplikatzea edo, halakorik izan arren, argi eta garbi ez betetzea, baldin eta plan hori egiteak abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.bis.2 paragrafoan xedatutakoari erantzuten badiu. Legegintzako dekretu horrek Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du.

1. No cumplir las obligaciones que en materia de planes de igualdad establecen el Estatuto de los Trabajadores o el convenio colectivo que sea de aplicación
2. Decisiones unilaterales de la empresa que impliquen discriminaciones directas o indirectas adversas en materia de retribuciones, jornadas, formación, promoción y demás condiciones de trabajo, por circunstancias de sexo.
3. Decisiones del empresario que supongan un trato desfavorable de los trabajadores como reacción ante una reclamación efectuada en la empresa o ante una acción administrativa o judicial destinada a exigir el cumplimiento del principio de igualdad de trato y no discriminación
4. Establecer condiciones, mediante la publicidad, difusión o por cualquier otro medio, que constituyan discriminaciones favorables o adversas para el acceso al empleo por motivos de sexo.
5. Acoso sexual, cuando se produzca dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo de la misma
6. Acoso por razón de sexo, cuando se produzcan dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo del mismo, siempre que, conocido por el empresario, éste no hubiera adoptado las medidas necesarias para impedirlo
7. No elaborar o no aplicar el plan de igualdad, o hacerlo incumpliendo manifiestamente los términos previstos, cuando la obligación de realizar dicho plan responda a lo establecido en el Apartado 2 del 46 bis del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social.